

2025EKO MAIATZAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Garazi Urkiola interpretariak.

1.- AURREKO AKTAK. 2025-04-10eko aktaren onespena.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du gaztelaniazko aktan “eskaera eta galderen” atalean bizikidetza ordenantzaren aipamena egiten denean ondorengoa zuzendu behar dela: “*Alcaldesas (EAJ-PNV): “Después de preguntar a Ner, me han dicho que no.”...*”, esaten duen tokian, ondorengoa esan behar du:

“Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV):): “Después de preguntarme, han dicho que no.”

Zuzenketa hori egin ondoren, aho batez onartu da 2025-04-10eko akta.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- KREDITU ALDAKETA. 6. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA. 2025CRAD0006

2025-05-22ko Antolakuntza batzordean eztabaidatutako Alkatearen proposamenaren berri eman da:

“Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikorik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 2.458.650,96 euroko zenbatekoaz kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, kapituluka honela laburtzen dena:

GASTUAK - GEHIKUNTZAK

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
4	Transferentzia arruntak	25.000,00
6	Inbertsio errealak	2.433.650,96
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		2.458.650,96

FINANTZAKETA - SARRERAK

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
8	Finantza aktiboak	2.458.650,96
SARRERAK GUZTIRA		2.458.650,96

2.- “0350.601.171.00.02 2024 Oria ibaiko ibilbidea” aurrekontu-kreditua 2024ko gerakinetatik 2025eko aurrekontuan txertatutakoa 650.000,00 eurotan, ez erabilgarri izendatzea.

3.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “La duda era en relación al camino del Oria. En cualquier caso nosotros nos vamos a abstener porque aunque hay modificaciones que son necesarias, como por ejemplo, las escaleras del Instituto que es una propuesta de EH Bildu pero que también anteriormente fue nuestra, es lo de siempre. Hay un presupuesto que se aprueba con previsiones iniciales que no son reales y luego se van modificando. Esa es la razón de la abstención”.

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Gu ere berdin. Gainera gehituko nioke kopuru inportante batez ari garela, ia milioi eta erdiko kreditu gehigarria eta proiektu asko zaku berdinean sartuta. Jokaera honek zaildu egiten digu oposizioan gauden heinean. Gauza batzuekin ados egon gintezke baina beste batzuekin, ez. Azkeneko legealdi honetan salatzen argi garen praktika da eta gu ere abstenitu egingo gara.”.

Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Gu ere abstenitu egingo gara, errepikatuko ez ditudan antzeko arrazoiengatik.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Guk ere betiko moduan, aurrekontuak lantzen ditugunean aurreikuspenak egiten ditugu eta aurreikuspen horiek aldaketak izaten dituzte. Gure programa aurrera eramateko aurrekontuetan partida garrantzitsuenak (obrak eta urbanizazio obrak), aurrekontuan txertatzen ditugu eta proiektua gauzatu eta lizitazioa egin baino lehen partida behar den zenbatekoan egokitu. Hori da gaur hona ekarri duguna.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 8 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Etorri gabeak. 0

Horren ondorioz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

b.- KONPROMISO-KREDITUEN ERANSKINA ALDATZEA. 2.027KO HIZKUNTZA-ERREFORTZUA. 2025EKBO0053

2025-05-22ko Antolakuntza batzordean eztabaidatutako Alkatearen proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- “Hizkuntza errefortzua” zerbitzua emateko kontratatzeko behar den kreditua ematea proposatzen da.

2.- 2025 eta 2026koeko ekitaldiei dagozkion kredituak erabilgarri daude baina ez da aurreikusi 2027 ekitaldirako beharko dena, beraz, beharrezkoa da kreditu hori hornitzea, konpromiso-kredituen eranskinean txertatuta.

Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA

Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:

0230.227.335.30.04 Beste enp.: Hizkuntza errefortzua:

2.027 urtea: 48.400,00".

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Aurretik Gobernu Batzordean ere adierazi dut hizkuntza errefortzuaren gainera gure iritzia zein den. Oraingoan, ordea, baiezkota emango diogu proposatzen denari operazio tekniko-ekonomikoa delako kontratua esleitu ahal izateko, nahiz eta guk hizkuntza errefortzu beste sistema bat hobeto ikusi. Askotan hizkuntza arazoak dituzten haur eta nerabeek nolabait ere toki batean sartzen dira et nahasketa zaildu egiten da. Hizkuntza errefortzua gai akademikoa ikusteko joera egoten da. Bai, hizkuntza errefortzua beharrezkoa da eta gauza batzuk ondo egiten dira, baina gai honi buelta bat emateko garaia dela pentsatzen dugu. Esan bezala oraingoan alde bozkatuko dugu."

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "Nosotros creemos en la importancia de este servicio y como bien ha dicho el portavoz de EH Bildu, se trata de una modificación necesaria para llevar a cabo la licitación. De acuerdo con la propuesta."

Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): "Guk lehen esan bezala alde bozkatuko dugu, behar den zerbitzua den heinean. Hobeto edo okerrago egin daiteke, baina beti dago hobetzeko aukera."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Azken urteetan defendatu dugun moduan, egun Beasainen beharrezko zerbitzua dela jotzen dugu hizkuntza errefortzu zerbitzua eskaintzea. Ikastetxeekin elkarlanean eta lankidetzan eskaintzen den zerbitzua da eta bai guraso eta baita ere ikastetxeak oso ondo baloratzen dute. Beasainek pausoa eman zuen eta ikusten dugu Gipuzkoan ere beste herriek zerbitzua eskaini dutela, nahiz eta beste deitura batzuk izan. Hizkuntza indartzeko eta euskara erabilera sustatzeko horrelako zerbitzuak abian jarri izan dira. Bilatzen duguna da, modu formalaz haratago, eremu informalean euskararen erabilera areagotzea eta euskararekin disfrutatzea. Egindako balorazioa positiboa denez, berriro ere lizitatzea erabaki dugu."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

c.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO HOBARIA: BEASAINGO JASOKUNDE ELIZAKO HORMA-PINTURAK KONTSERBATZEKO ETA ZAHARBERRITZEKO OBRA. 2025OBMA0002

2025-05-22ko Antolakuntza batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

"GAIA: BEASAINGO ANDRE MARI ZERURATUAREN ELIZAKO ERRETAULA ETA HORMA-IRUDIAK BALIOAN JARTZEKO ESKU- HARTZEAK SORTUTAKO ERAIKUNTZEN GAINEKO ZERGARI BURUZKO HOBARI ESKARIA.

AURREKARIAK

1.- 2025ko otsailaren 7an, aipatutako obretarako lizentzia eskaera aurkeztu zen eraikuntza, instalazio eta obren gainera zerga arautzen duen ordenantzan aurreikusitako % 95eko hobaria eskatzearekin batera, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko.

2.- Lehenago, 2023ko uztailean, Udalaren eta parrokiaren artean hitzarmen bat sinatu zen, bi aldeek ondare historikoaren kontserbazioa bermatzeko konpromisoa jasotzen zuena, parrokia babesteko beharrezko elementuen zerrendan sailkatuta dagoela adieraziz, eta 50.000,00 euroko dirulaguntza eman zuen Udalak parrokiako horma-pinturak kontserbatzeko eta zaharberritzeko 1. eta 2. Faseari dagozkion obrak finantzatzeko.

Era berean, 2024ko ekainaren 6an, proiektuaren bigarren fasea gauzatzeko lizentzia eskatu zen, eta Beasaingo Udalak horrezaz gain 50.000 euroko bigarren dirulaguntza eman zuen.

2025eko maiatzaren 29an, Beasaingo Udalaren eta parrokiaren artean hitzarmen berri bat sinatzea proposatzen da, Beasaingo Jasokundeko Andre Mariaren parrokiari 130.000 €-ko dirulaguntza emanez. Hitzarmen horren xedea da elizako horma-pintura errenazentistak kontserbatzea eta zaharberritzea, bai eta beharrezko kokaleku-aldaketak egitea ere.

3.- Espediente honen xede den hobari-eskaerarekin batera, obra horiek egiteko baimena ematen duen eta parrokia babes ertaina duten elementuen zerrendan jasota dagoela adierazten duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren ebazpena erantsi da.

4.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengoa jasotzen du:

“100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko- artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin. “

Azaldutakoaren arabera, Antolakuntza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengoa, PROPOSATU DIO:

Lehenik. Interes bereziko eta udal onurakoak izendatzea zirkunstantzia historiko-artistikoak betetzen direlako, Beasaingo Andre Mari Zeruratuaren elizako erretaula eta horma-irudiak balioan jartzeko esku-hartzeak.

Bigarren. Beasaingo Andre Mari Zeruratuaren elizako erretaula eta horma-irudiak balioan jartzeko esku-hartzeak sortuko den Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga- kuotaren gaineko % 95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- TASAK:

- 2025-2026 IKASTURTERAKO UDAL EUSKALTEGIRAKO KUOTAK. 2025EUBO0002

Ezagutzero eman da 2025-05-22ko Herritarrak batzordeak Udalbatzari onespenerako aurkezten dion proposamena, Beasaingo Udal Euskaltegian 2025-2026 ikasturtean irakaskuntza zerbitzuak emateagatik aplikagarri izango diren tasen onespenerari buruzkoa, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez:

“Beasaingo Udal Euskaltegiak Erkidegoko martxoko KPIaren %2,8ko igoera aplikatzea proposatzen du. Ondoren, eranskin zehazten dira Beasaingo Udal Euskaltegian 2025-2026 ikasturtean ikastaro desberdinei aplikatuko zaizkien tasak eta ordainketako baldintzak, baldin eta Udalak aldatzeko erabakirik hartzen ez badu:

TASAK 2025/2026 IKASTURTEA

- Aurrez aurreko ikastaro orokorra: 1,39 €/orduko

- Auto-ikaskuntza ikastaroa: 2,48 €/orduko

- AISA ikastaroa: 37,43 €/ikastaroko
- Materiala urritik ekainerako ikastaroetan: 27,83 €
- Udako ikastaroan: 13,90 €
- Ikastaro laburragoetan material kostu ikastaroaren iraupenaren proportzioan kobratuko da.

ORDAINKETA EPEAK:

- Ikasturte osoko ikasleek matrikula-kopurua hileko 8 kuotatan banatuta ordainduko dute, azarotik ekainera.
- Urtarrileko deialdian matrikulatzen diren ikasleek bost kuotatan ordainduko dute matrikula, otsailetik ekainera, alegia.
- Ikasturte laburretan matrikulatuta dauden ikasleek matrikula kopurua kuota gutxiagotan ordainduko dute. Kuota kopurua ikastaroaren iraupenaren arabera izango da.
- Udako ikastaroak: ordainketa ikastaroaren lehenengo 7 egunetan egin beharko da.
- Langabezia dauden pertsonentzako beka eskatzen duten ikasleei matrikula ordaintzeko eskatuko zaie, hala badagokio, bekaren ebazpenarekin batera.
- HABEekin ikasleei-diru-laguntzak emateko sinatutako lankidetzak-hitzarmenarekin lotutako matrikulen tasaren ordainketa baldintzak ondorengoak izango dira:

- o Matrikulazio epean: Hitzarmenaren arabera, ikasleak ordaindu beharreko kopurua.
- o Gainerakoa: HABEak ordainduko du hitzarmenean azaltzen diren baldintzen arabera.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- 2025-2026 IKASTURTERAKO LOINATZ UDAL MUSIKA ESKOLARAKO KUOTA ETA HOBARIAK. 2025MUBO0006

Ezagutzera eman da 2025-05-22ko Herritarrak batzordeak Udalbatzari onespenerako aurkeztzen dion proposamena, Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolan 2025-2026 ikasturtean aplikagarri izango diren kuoten eta hobariak onartzeari buruzkoa, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez:

AURREKARIAK:

- Martxoko KPIa aplikatzeko aginduari jarraituz, %2,3ko igoera aplikatzea proposatzen da.
- Musika Eskolaren finantzazioaren %33a ikasleen kuotetatik eskuratzen saiatzen gara.

LEHENIK. 2025-2026 ikasturtean Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolan emango diren irakaskuntza zerbitzuengatik aplikatuko diren tasak, hobariak eta baldintzak hasiera batean onartzea. Kuota hauek aplikatu ahal izango dira hurrengo ikasturteetan, baldin eta Udalak aldatzeko erabakirik hartzen ez badu.

KUOTAK

2025-2026 IKASTURTEKO TASAK		
IKASGAIAK	PROPOSAMENA	
	IKASTURTEKO KOPURUA	Hilabeteroko kopurua
I. MAILA: Musika Tailerra	300,00 €	30,00 € hilabete
I. MAILA: Hastapena	380,00 €	38,00 € hilabete
II. MAILA: Instrumentua+ Musika Lengoia	870,00 €	87,00 € hilabete
II. MAILA: M. Lengoia+Pandro	670,00 €	67,00 € hilabete
II. MAILA: M. Lengoia	380,00 €	38,00 € hilabete
II. MAILA: Panderoa	450,00 €	45,00 € hilabete
II. MAILA: Musikoterapia 1. aukera (40' + Instrumentua 40')	870,00 €	87,00 € hilabete
II. MAILA: Musikoterapia 2. aukera 1h/astean	700,00 €	70,00 € hilabete
III. MAILA: Instrumentua + Ikasgai osagarria	920,00 €	92,00 € hilabete
III. MAILA: Instrumentua/Errefortzu ikasgaia	720,00 €	72,00 € hilabete
III. MAILA: Ikasgai osagarria	380,00 €	38,00 € hilabete
IV. MAILA: Taldeak (Banda eta Harizko Orkestra salbuetsita)	90,00 €	9,00 € hilabete
3. adineko Musika Tailerra	90,00 €	9,00 € hilabete
Barnetegia	32,00 €	Ordainketa bakar
Irteerak/Topaketak	21,00 €	Ordainketa bakar
Matrikularen tasa 50€ eta materialarena 17€ kuotetan txertatuta daude		

Orain arte matrikula-tasa kobratzen zen, eta materialaren kostua abenduan. Orain, bi kontzeptuen kopurua zatikatu dugu hilabeteroko kuotetan.

HOBARIAK

1. atala	2. atala	3. atala	4. atala	
			4.1	4.2
Gizarte Larrialdiko Laguntzak eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonen. Hilero kontrolatuko da, Eskolak gizarte zerbitzuetatik jasoko duen informazioaren bitartez, edo dagokion erakundearen ziurtagiriaren bidez, dagokion hilean diru laguntza jaso dela egiaztatuko duena.	3 pertsona baino gehiago matrikulatuta dituzten familia unitateak. <i>*Edo inoiz izan dituztenei (gutxienez 4 urtez)</i>	Diru-sarrerak Ezarritako sarreraren azpitik dagoen familia unitatearen kontrola urtean behin egingo da, familia unitateko kide guztien aurreko urteko errenta aitortpena aurkeztuta.	Tronpeta, tronboia, saxofoia. Espezialitateak sustatzeko. Matrikula berriak.	Klarinetea eta akordeoia. Espezialitateak sustatzeko. Matrikula berriak.
%80	Kuota txikiena duen pertsona ordaintzeaz salbuetsita.	%50 LGS x 1,25 Familia unitateko pertsona bakarra matrikulatuta familia unitatean. LGS x 1,61 Familia unitateko bi pertsona matrikulatuta familia unitatean. LGS x 1,78 Familia unitateko hiru pertsona matrikulatuta familia unitatean.	%20 lehengo bi urteetan.	%50 lehengo bi urteetan.

- Hobariak ezin dira metatu eta eskera ikasleak egin behar du.

*BALDINTZAK

-Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

- Ordainketarako epea: urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.

BIGARREN. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta zabalkunde handieneko Gipuzkoako egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedienteak jendaurrean 30 laneguneko epeko da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

HIRUGARREN. Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, erabakia behin betirako onartutzat hartuko da, eranskinaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta argitalpenaren hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean azaldu genuen gure poza hobari hauen inguruan. Zerbitzu publikoa denez, hobari hauek ahalbideratu egiten dute herritarrentzat eskuragarriago egotea. Historikoki EH Bilduk egindako eskaera izan da harridura jaso genuen hobariak ematea proposatu zenean. Hainbat bileretan askotan hitz egin dugu zerbitzu publikoa den heinean denon eskuragarri egon beha zela eta dirulaguntzak ematea proposatzen genuen, baina udal gobernu honen ustetan ezinbestekoa ez den zerbitzua izateagatik ez zen bidezkoa ikusten guk proposatutakoa. Aldaketa posez hartu dugu eta orain pixkanaka-pixkanaka kiroldegiko prezioetara extrapolatzea dagoen.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Orain arte oinarritzakoak diren zerbitzuengatik kobratzen diren tasetan aplikatzen ditugu hobariak eta dirulaguntzak. Denontzat ezagunak dira zabor-tasetan eskaintzen diren dirulaguntzak eta udaran kiroldegira joateagatik kobratzen direnak. Oinarri-oinarrian dago oinarritzako zerbitzua izatea. Musika eskolak betidanik izan du ikuspegi hezitzailea, musika eta kasu bakoitzaren instrumentu bat jotzen ikasi. Azken urteetako ibilbideak erakutsi du bertan ematen diren ikasketak bai baldintzen aldetik eta baita ere metodologia aldetik ere, pertsonaren bilakaera integrala lortu nahi duela. Zentzu honetan aztertu egin da eta hobari hauek aplikatzea proposatzen dugu, familien diru-sarreraren arabera. Balorazio egingo da eta izango dugu aukera aztertzeko eta lantzeko abagunea.”

Bozketa egin da, aho batez onartu da proposamena.

b.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK: IGARTZA-MUSIKA BEKA 2025-2026 IKASTURTERAKO. 2025MUBO0003

Ezagutzera eman da 2025-05-22ko Herritarrak batzordearen proposamena:

“IGARTZA MUSIKA BEKA. 2025-2026 IKASTURTERAKO DEIALDIA

OINARRIAK

Zioen azalpena

Beasaingo Udalaren barruan dagoen Musika Eskola azpiarloa (lehen erakunde autonomoa zena), aurrerago adieraziko den helburuarekin, 2016az geroztik ari da Oinarriak onartzen eta "Igartzia Musika Beka" izeneko beka emateko deialdi publikoa egiten.

2024-2025 ikasturterako egindako deialdiarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan musikaren kultura eta zabalkundea sustatzen lagundu da, eta egiaztatu da kezka musikala dagoela, honako hauek kontuan hartuta:

- Lehiaketan 45 parte-hartzaile izan ziren.
- Beka emateko eskainitako entzunaldi irekietara eta gero bekadunek emandako kontzertuetara bertaratuak jende kopurua aurreikusitakoa izan zen.

Beka hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17.1.20) artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14).
- Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (2. helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. lerroa: kultur sorkuntza sustatzea).

Lehena. Bekaren xedea

Beka honen helburua Euskal Herrian kultura sustatzea eta musika hedatzea da, bereziki goi mailako musika-hezkuntzaren esparruan.

Bigarrena. Beka-motak

Bi beka ezarriko dira:

- Musikeneko Goi Mailako Musika Ikasketetako ikasleentzat.
- Musikeneko Master ikasleentzat.

Hirugarrena. Parte hartzeko baldintzak

Deialdia Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Interpretazio espezialitateetan (klasikoa edo jazz) matrikulatuta dauden eta ikasketak egiten ari den edozein adin edo nazionalitateko parte hartzailei dago irekia.

Musikenen Goi Mailako Titulazioaren laugarren urtean eta Interpretazio Masterretan (Orkestra Ikasketen Masterrak, Musika Interpretazio Masterra eta Jazz-Interpretazio Masterra) matrikula egina duten ikasleek izango dute saria jasotzeko aukera, hurrenez hurren.

Bekak helburu dituen ikasketak 2025/2026 ikasturtean egin beharko dira.

Eskatzaileek curriculum labur bat eta programa libre baten egitaraua eman beharko dituzte, gehienez hamar minutuko iraupenekoa. Egitarauak barne hartzen dituen bi obra gutxienez, edo obren mugimenduak, estilo ezberdinetakoak izan beharko dira.

Hala behar duten obrak laguntzaile batekin jo beharko dira, hautagaiek eraman beharko dute.

Bekara aurkezteak oinarriak osotasunean onartzen direla esan nahi du.

Laugarrena. Eskaerak

- Epea: Eskaerak jasotzeko epemuga 2025ko azaroaren 7a izango da.
- Aurkezteko tokia: Eskaerak master@musikene.eus helbidera bidaliko dira Master ikaslea bada eta mgenua@musikene.eus Goi Mailako ikaslea bada. Horretarako oinarri hauetako I. eranskinean azaltzen den eskaera-orria bete eta eskatzen den dokumentazioa atxiki beharko da.

Bosgarrena. Epaimahaia

- Osaketa. Berariazko epaimahaia izendatuko da, gutxienez ospeko hiru musikariez osatutakoa. Musikenek izendatuko du Beasaingo Udalaren onarpenarekin eta epaimahaian ere Udalaren ordezkari bat egongo da.
- Funtzioak:
 - Epaimahaiak hautagaiei elkarrizketa egiteko ahalmena izango du beraien musika-egitasmoa ezagutzeko helburuz.

- *Epaimahaiak, kontzertu beraz gain, bere balorazio irizpideetan kontutan izango ditu hautagaien meritua akademiko eta artistikoak.*
- *Erabakiak:*
 - *Bekak Beasainen jendaurrean egingo den kontzertu baten ondoren erabakiko dira, 2025ko azaroaren 29ean. Izena eman duen ikasleari eguna eta ordua gutxienez hamar eguneko aurrerapenaz jakinaraziko zaio.*
 - *Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira.*
 - *Epaimahaiak, antolakuntzarekin adostuta, sariak hutsik utz ditzake.*

Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

Seigarrena. Sariak

Bi motatako sariak izango dira:

- *3.300 €ko beka Master ikasleentzat*
- *2.200 €ko beka Goi Mailako ikasleentzat.*

Beka ordaintzeko Alkateak dagokion Ebazpena emango du, baina alde zurretik udal zerbitzuek egiaztatuko dute onuradunek ondorengo baldintzak betetzen dituztela:

- a) 38/2003 Legeak (Diru-laguntzen Lege orokorrak) 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere sartuta ez egotea.*
- b) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiria eta Beasaingo udalaren zorduna ez izatea.*

Udalak, baldintza horiek betetzen direla bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko ditu, sariduna horren aurka azaldu ezean.

Kasu horretan edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa lortu esandako moduan, saridunari eskatuko zaio adierazitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkezteko.

Zazpigarrena. Ordainketa

Bekaren zenbatekoa bi epetan jasoko da:

- *Lehenengoa "Igartza Musika Beka" ematearekin batera.*
- *Bigarrena kontzertua egin ondoren.*

Sariei legeak ezartzen dituen zerga atxikipean ezarriko zaizkie.

Zortzigarrena. Sarituen betebeharrak

Irabazleek ezingo dute hurrengo deialdietara aurkeztu.

Sari banaketan derrigorrezkoa da partaideen presentzia, saria jaso ahal izateko ezinbestekoa.

Oinarri hauetan azaltzen diren baldintzak betetzea.

Emandako saria idatziz onartzea, eman izanaren jakinarazpen ofiziala gutun batean jaso ondoren. Onarpena gutunean adierazten den epea baino lehen gauzatzen ez bada Bekari inplizituki uko egiten diola ulertuko da.

Bekak helburu dituen ikasketetan Musiken matrikula egina duela egiaztatzea eta probetxuz egitea aipatutako ikasketak. Honetarako, Musiken ziurtagiria emango du, non bi baldintzak egiaztatzen diren.

Bekadunek Igartzako Jauregian edo Beasaingo beste edozein lekutan doako kontzertu publiko bat emango du Beka honen antolakuntzak ezartzen duen datan.

Bekadunen curriculumean derrigor aipatu beharko da honako testua: Beasaingo Udalaren "Igartzako Musika Beka".

Bederatzigarrena. Beka bueltatzea

Beasaingo Udalak eta Musikenek beka kentzeko aukera izango dute ezarritako betebeharrak betetzen ez badira.

Hamargarrena. Oinarriak argitaratzea

Oinarri hauek onartu eta gero BDNS delakoa bidaliko da, ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezten. Halaber, Beasaingo Udalaren webgunean argitaratuko dira eta Musikenera era bidaliko dira beraien web orrian argitaratu ditzaten.

Hamaikagarrena. Datuen babesa.

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

Hamabigarrena. Aplikatuko den araudia.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

Hamahirugarrena. Ebazpena eta helegiteak.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan."

Alkate andreak adierazi du egonkortzen ari den inizatiba bat dela eta geroz eta parte-hartzaile gehiago izaten direla, lehengo urtean adibidez, 45 izan ziren.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRATIOEK ESKU HARTZEN DUTEN OBRAK EGITEKO UDAL-EKARPENAK: Garingo saneamendua egiteko obrei buruzko 4. Ziurtagiria (2. Eskara-ordainketa). 2024HIBO0054

2025-05-22ko Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da Garingo saneamendua egiteko obren 4. Ziurtagiria (2. ordainketa-eskaria), 38.681,38 €koa (BEZ barne)

b.- OBRA-ZIURTAGIRIAK: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEAK BERRURBANIZATZEKO OBREI BURUZKO, 6. ZIURTAGIRIA.

2025-05-22ko Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, “*San Inazio eta Esteban Lasa kaleak berrurbanizatzeko proiektuko obrei buruzko*” 6. obra-ziurtagiria, 43.520,66 €koa (BEZ barne).

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Azpimarratu nahiko genuke obra honetan suertatu diren zartadurak eta sortutako arazoak kezkatu egiten gaituela. Badirudi irtenbide batzuk hartu direla oztopoak saihesteko baina hemendik aurrera eman beharreko pausoak ere kezkatu egiten gaitu eta ikuskizun gaude zein norantzetan joango diren.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Lurralde batzordean aparejadoreak informazio xehatua eman zuen azaldutako pitzaduren inguruan eta udal honek hartutako neurrien inguruan. Pitzadura horietan erloju eta inklinometro batzuk jarri dira eta gainean gaude jakiteko zein datuak ateratze diren. Bihar bertan bizilagunekin bilera bat izango dugu azaltzeko orain arte hartuko bidea zein izan den.”

5.- MOZIOAK:

a.- MOCIÓN DE BEASAINGO EH BILDU, PSE-EE ETA PODEMOS-EN MOZIOA OLARAN ERAIKINAREN PROIEKTUARI BURUZ. 2025IDBO0010

Alkate andreak aipatutako udal taldeei hitza eman die mozioa irakurtzeko :

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “

“Todos los partidos compartimos la rehabilitación del edificio Olaran, pero no el proyecto que se nos ha presentado ni la forma en que se están tomando las decisiones. Por las razones que vamos a exponer a continuación:

Falta de transparencia en el desarrollo del proyecto. *Dándole la espalda a la ciudadanía y a los partidos de la oposición. El Gobierno Municipal nos presentó el proyecto de “Olaran talentu faktoria” por primera vez en la comisión de octubre de 2024. Antes de esa comisión, los partidos de la oposición no recibimos ninguna información. Y después, tampoco se nos ha dado la oportunidad de participar ni de opinar. Además, hasta ahora, no se le ha dado la oportunidad de participar a la ciudadanía en este proyecto. Aunque se han realizado dos asambleas abiertas, estas solo han sido informativas y no han dado la oportunidad de hacer propuestas o aportaciones.*

En ese sentido, las sesiones de participación realizadas en mayo no nos parecen adecuadas, ya que la participación se limita a un espacio específico previamente determinado y no se extiende a todo el edificio.

Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE):

“Adostasunik gabeko aldebakarreko proiektua da. *Olaran eraikinaren eraberritzea, azken hamarkadan Beasaingo udalak egindako inbertsio publiko garrantzitsuena izatea aurreikusten da. 8 milioi euro inguru udal ordezkarien arabera. Beasaingar guztion ekarpen ekonomiko handia suposatuko du eta ondorioz, garrantzitsua da **Olaran faktoriaren eraberritzea ahalik eta kontsentsu zabalenarekin egitea.** Zentzu horretan, egungo argazkia oso bestelakoa da. Oposizioa alderdi guztiak proiektuaren aurka azaldu gara, eta horrez gain, herritarren artean ez du harrera onik izan, informazioa zabaldu ahala aurkako iritzia zabaltzen doaz. Horren adierazle dira, bi batzar irekietan herritarrek egiten zituzten kritikak edota orain dela gutxi, herritarren inizatibaz, “Olaran Beasaingarrokin” lemapen egin zen batzar irekia.”*

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu):

“Olaran eraikina beasaindarrei zerbitzua ematera bideratuta egon behar du. Eraberritzeak, Beasainek, gaur egun dauzkan hainbat erronkei erantzuteko aukera ematen digu: Erdigunea eta porteria auzoa lotu, kultur ekipamendu gehiago eskaini, etxebizitza eskuragarriak gehiago izan, Beasainen garapen sozialerako espazio eraiki ... Herri gisa dauzkagun hainbat premiei erantzuteko aukera dugu Olarango eraberritzearen bidez, eta eraikina zein inbertsioak publikoak izango diren heinean, eraberritzeak beasaindarrei zerbitzua ematera bideratuta egon behar du.

Hori dela eta, mozio honen bidez, **ondorengo eskaerak** egiten dizkiogu Beasaingo EAJ-PNVren Udal gobernari:

- 1- Oraingo proiektua, behin-behin, bertan behera uztea.
- 2- Partaidetza-prozesu integral bat abian jartzea, Olarango eraikinaren etorkizuna bere osotasunean definitzeko; herritarrek parte hartu ahal izango dute hainbat eragile sozial eta politikorekin batera, erronkak eta beharrak identifikatu ahal izateko eta, horrela, adostasun zabaleko proiektu bat garatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritzia azaldu dute:

Alkate andreak (EAJ-PNV): “2008an Manufacturas Olaran eraikina Udal honen jabetza izatera pasa zen momentutik, Beasaingo Udalarentzat aukera eta erronka bilakatu zen.

Aukera, Ezkiaga auzoari eta Beasain osoari zerbitzu publiko osagarriak eskaintzeko leiho berri bat zabaltzen zelako eta erronka, 3.300m² baina gehiago dituen Monumentu Multzo bat birgaitu eta mantentzeko bideragarritasun formulak bilatu behar zirelako.

Izan ere, beasaindarrek jakin behar dute tamaina honetako ondare bat ezin duela Beasaingo Udalak soilik mantendu, urtez-urte udal aurrekontuetan izango lukeen inpaktua ez delako jasagarria.

Horregatik, kudeaketa ona, zuhurtzia eta ardura politikoa oinarritzat hartuta, eraikin razionalista hau birgaitu eta izango lituzkeen zerbitzu publikoak finantzatzeko eredu desberdinak lantzen aritu da EAJ-PNV azken 17 urteetan.

Saiakera desberdinen ondoren, 2021a geroztik zerbitzu publiko hauei bideragarritasuna emango lioken lan ildo berri bat hartu zuen Udal Gobernu honek, dozenaka aurkezpen, lan-saio, tailer, eta bileren eskutik osatzen joan dena. Besteak beste, Goieki, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza bezalako erakundeetatik hasita, Goierriko unibertsitate, ikerketa zentro eta tamaina desberdinetako enpresek elkartuz, kooperatibak direnak, ez direnak, enpresa handiak, zein txikiak aintzakotzat hartuz eta beraien babesarekin.

Horren adierazle dira, ekimena espresuki babesten duten erakunde desberdinen interes gutunak.

Lanketa honen emaitza izan da Olaranek bere barnean hartuko lukeen egoitzaren proposamena, bertako zerbitzu publikoak finantzatzeaz gain Beasainen eta bailara honek datozen hamarkadetan izango duen erronka bati aurre egiten lagunduko diguna: eskulan goierritarra hemen errotzea eta krisi demografikoaren ondorioz berreskuratu zein erakarri nahi diren pertsona guzti horiek Goierri aukeratu dezatela gure sare industrial eta ekonomikoa garatzen jarraitzeko. Izan ere, ongizatea eta garapen ekonomikoa txanpon beraren bi aurpegi dira.

Ongi egindako lanaren konfiantzatik, Olanar Talentu Faktoriaren lehen proposamena beasaindarrei aurkeztu genien 2023ko hauteskundeetako programan, bere egin zutena maiatzean izandako emaitzak ikusita. Beraz, lan ardatzak orain bi urte dira publikoak, gardentasunez herri honentzat genituen proposamenak etxez-etxe partekatu eta kaleetan publikoki defendatu genituen heinean.

2024ko urriko Lurralde Batzordean oposizioari proiektuaren xehetasunak azaldu ondoren, urriaren 28an Murumendi Eskolan zein 29an Batzar Areto honetan lehen bi parte-hartze saio burutu genituen non beasaindarrek berriro hitza hartu zuten ekarpenak eginez.

Pasa den urritik gaur arte 7 hilabete igaro dira eta tartean 5 Lurralde Batzorde, oposizioko taldeek zein Udal Gobernuak proposamenak eztabaidatu eta lantzeko dituzten foroetako bat. Bost aukera hauetan, oposizioak ez du proposamenik egin proiektua aberasteko. Aldiz, alternatiba bideragarriak egiteko borondate falta edo ezintasunagatik mozio honen aurrean beraien estrategia politikoak lerrokatu dituzte.

Hilabete hauetan ekarpenak egiteko izan dituzten batzordeez gain, oposizioarekin eraikina bisitatu genuen gure proiektua bertatik-bertara azalduz eta orain 10 egun, Olarenantzako proiektua lantzeko elkarriketa berriak hasteko proposamena egin genuen oposizioko alderdi guztiei adostasun puntuak bilatzeko. Oraindik ez dugu erantzunik jaso, erantzun bat bera ere ez.

Aldiz, erantzun, proposamen eta ekarpenak egin dituztenak beasaindarrak izan dira, maiatzeko parte-hartze prozesuan eraikinerara egindako bisita eta parte-hartze tailer desberdinetan 100 herritar baino gehiagok parte-hartu dute, norbanako zein elkarte desberdinen izenean. Balorazio oso positiboa egiten dugu, pozik gaude eta adierazpen hau beraiei eskerrak emateko ere baliatu nahiko genuke. Saio hauetan jasotakoa itzultzeko, datorren hilabetean itzulketa saioa egiteko konpromisoa hartu dugu. Baita edozein zalantza argitu edo informazioa ere emateko.

Guzti honegatik, Udal Gobernu honek Olanar birgaitzeko beasaindarrekin duen konpromisoa betetzeko helburua berresten du eta aldi berean, oposizioko alderdi desberdinei eskualizatzen jarraituko du Olanar Talentu Faktoriako zerbitzu publikoak bideragarri egingo dituen proiektua osatzeko.”

Hitza eskatu eta Alkate andreak eman ondoren Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu), ondorengo esan du: “Bi plano daude: zer egin eta nola. Mozio honek lehenik eta behin nola egin adierazten du. Alkateak esan du zein izan den prozesua. GOIEKI ere aipatu du eta atentzioa deitu dit. Azkeneko bi urteetan Administrazio Kontseiluan gaudenok ez dugu inongo berririk jaso gai honen inguruan. Mozio honekin EH Bilduk esan nahi du azkenean eskaintzen zaiguna ondorengo dela: Beheko solairuan 800 m2 inguruko eta terraza publikoarekiko parte-hartze prozesu bat, baina kurioa da zeren eta onartu diren lehiaketa-proiektua egiteko pleguetan, gune publiko horretatik 350 m. zirkulazio gune modura planteatzen dira. Beste 90 m2 sting-gela bat bezala, beste 120 m2 taberna-restaurantea eta 125 m2 erabilera polibalentea. Parte-hartzeko eremua mugatua da. Hori da “nola” inguruan. “Zer” inguruan seguraski oposizioko hiru alderdiok ere ideia ezberdinak izan ditzakegu Olanaren zer egin behar den horretan, baina momentu honetan batzen gaituena da nola eramaten ari den prozesua guztia. “Zer” egin zehazteko denbora egongo da. Guk orain arte ez dugu presarik nabaritu, baina azkeneko hilabete honetan, bai. Bisita baten eskaini zaigu parte-prozesu bat egitea azken legegintzaldi guztian urri arte, mahai gainen egon ez denean. Berriz esango dut GOIEKInen atentzioa deitzen dit.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): ““Nola”ri erantzunez. GOIEKikoak atentzioa deitu badizu jakin zuei partekatutako informazioaren argazkietan GOIEKiko gerentea agertzen dela. Neroni GOIEKIn gutxienez bi aldiz egon naiz agente ezberdinen aurrean aurkezpenean

egiten. Prozesu honetan GOIEKI bidelagun izan dugula eztabaidatzea zaila da. Adierazi duzun modura ematen du publikotasuna izango duen espazioa gutxikeria dela. Jakin azalera guztia aztertu ezker, %40a baino gehiago dela: 3.300 m² eta 1.440 m². Kontuak atera, %43a da. Zirkulazioaz hitz egiten duzunean, 330 m.ko pasilloa ez dago. Aurre-proiektua mailan proposatzen dena plaza estalia egitea da. Parte-hartze prozesu ezberdinetan esan dugun bezala helburua da aurre-proiektua bat izatea arkitektura lehiaketaren eskutik eta parte-hartze prozesuan jaso dugun informazioa erabiltzea espazio publiko horren erabilera zein izango den erabakitzeko. “Zer”i erantzunez esan urritik hona bost lurralde batzorde egon direla eta beste hainbeste bozeramaile batzorde. Batzorde informatzaileak lanketa guneak dira eta oposizioak edozein momentutan guk egiten ditugun proposamenetik haratago mahai-gainean jarri ditzake hainbat gai eztabaidatu ahal izateko. Horrezaz gain, nahi izan ezker, mahai bat osatu daiteke guztiok hitz egiteko, baina gaur arte ez dugu inolako proposamen zehatzik jaso. Hori da guk “nola” eta “zer” inguruan egiten dugun irakurketa.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean, noski, parte hartzeko aukera izaten dugu, baina benetan oposizioak parte-hartzea nahiko bazenute gai honi buruz informazioa duenak, publiko egin eta komunikabideetan azaldu aurretik, gutxienez oposizioko alderdi guztiei eskuragarri jarri beharko zenukete eta ez egin duzuen bezala. Benetan gure ekarpenetan interesatuta bazaude, aurretik nahiko denbora izan duzue ekarpenak jasotzeko. GOIEKI. Argazkiak ikusi ditut, baina GOIEKI zuzendaria baino gehiago da, Administrazio Kontseilua dago, indar-korrelazioa, lehendakaria etab. Jende asko ideia hori baieztatzen!. Eta hau zergatik esaten dut?. Planteatzen dena GOIEKiren funtzioetako bat da: Talentua, industria...Beasaingo udalak lagundu egin dezake baina gidatu, GOIEKik gidatu beharko luke. Gerentea argazkietan atera da baina Administrazio Kontseilua ez da argazkietan atera. Zuen lehenengo erantzuna hau da, baina mozioari emango diozuen erantzunaren zain geratzen gara. Guk behintzat, EH Bildu bezala, ondo pentsatu nahi ditugu pausoak nola eman.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Jakin GOIEKiko lehendakaria gai honetaz jakitun dela. Hiru kideen artean egiten dugun bilera horretan azaldu zitzaion. “Nola” horretan indarrak jarritz berriro ere gure prestutasuna azaltzen dugu. “Zer” egin horretan beharbada ez gara ados egongo baina, proposamenak egin itzazue, tokatzen diren foroetan entzun ditzagun. Horretaz gain eta batzorde informatzaileak eta bozeramaile batzordeak ez badira nahiko, eskaini zaizue beste foro bat irekitzeko lanketa hori egiteko. Bisita egin genuenean esan zenuten denbora asko ez zenuela behar. Egun batzuk pasa dira eta lehenbailehen erantzuna emateko eskatuko nizueke.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “EH Bilduk parte hartu nahi du osotasunean, herritarrekin. Proiektuaren inguruan osorik hitz egin nahi dugu. Erabaki asko hartuta daude eta ez dakit dagoeneko aukerarik izango dugun...”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros con la presentación de la moción queremos que se haga un alto, un pensar sobre el proyecto. Cuando a nosotros se nos presenta este proyecto, ya está hecho. Cuando se da oportunidad a la ciudadanía para participar, es para parte del proyecto porque en su mayoría está cerrado. Lo que pedimos, tal y como ha dicho el representante de EH Bildu, es que la participación sea integral, ya que se trata de un edificio que debería estar destinado a un servicio público. Se nos achaca el no haber hecho aportaciones. Nosotros ya las hicimos en el momento de aprobar el presupuesto, que en parte se aprobó. Propusimos hacer un museo de la evolución industrial en Beasain. Además históricamente el deseo del partido socialista ha sido que la música escuela tenga su propio espacio. ¿Aportaciones?. Si. ¿Que haya una mesa participativa?. Si, pero ¿para qué?, ¿para un proyecto ya, en parte, cerrado?”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Eremu ezberdinak begiratuko bagenitu eta guztion koleretako gobernuak kontuan hartuta, nekez ikusiko genuke horrelako espazio publikoetan erabilera herritarren-parte hartzeari solik utzita. Joan gaitezke Errenteriako Lekuona faktoriara, adibidez. Hor ere zati bat oinarri batekin sortu zen. Guk bilatu nahi duguna da herri honek duen erronka

bat erantzungo dion proiektu bat aurrera eramatea eta bide batez eskuragarri jartzea espazio publiko bezala 1450 m2 herritarrek erabaki dezaten zer egin nahi duten. Egun den parte-hartze prozesuan parte hartu zenuten eta ikusteko aukera izan zenuten, guk alde egin genuela inor ez baldintzatzeko. Badakizue zein eremuaz aritu zineten eztabaidatzen. Orain proposamen horiek jaso eta lerrokatuko ditugu eta esanda bezala guk lantzen ari garen proiektuaren osagarri izango dira.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, Beasaingo EH Bilduk, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK udal taldeek aurkeztutako mozioa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 8 (Beasaingo EH Bilduk, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak eta ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK).

Aurkako botoak: 9 (EAJ-PNV)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 0

Mozioa ez da onartu aldeko botoen kopurua aurkakoen baino txikiagoa delako.

b.- EAJ-PNV ETA BEASAINGO PSE-EE-REN MOZIOA, GAZAKO BIZTANLERIA ZIBIL PALESTINARRAREN AURKAKO GENOZIDIOA GAITZESTEN DUENA. 2025IDBO0012

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Alderdi sozialistak mozio bat aurkeztu zuen eta ondoren EAJ alderdiarekin beste bat adostu genuen. Orain hona ekartzen dugun mozioa, aipatutako bi alderdi politikoen artean adostutakoa da.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “

“Durante las operaciones militares israelíes en Gaza, que comenzaron tras los terribles ataques de Hamás del 7 de octubre del año 2023, que constituyen crímenes de guerra y en los que la organización asesinó a más de 1250 personas y secuestró a más de 250 rehenes, Israel ha puesto en marcha innumerables acciones encaminadas a causar un daño irreparable a la población palestina.

Hace más de un año que el mundo es testigo de un grado inconcebible de muerte y destrucción en la Franja de Gaza ocupada. El brutal ataque de Israel contra la población palestina de Gaza ha matado a decenas de miles de personas, borrado de la faz de la tierra a familias enteras, arrasado barrios residenciales, destruido infraestructuras críticas y desplazado forzosamente a 1,9 millones de palestinos y palestinas —más del 90% de la población de la Franja de Gaza—, causando una catástrofe humanitaria sin precedentes.

Mientras el mundo mira, Israel ha roto unilateralmente el alto el fuego y sigue cometiendo ataques implacables con impunidad que causan la pérdida incesante de vidas palestinas mientras la desesperada catástrofe humanitaria en Gaza sigue empeorando. Agravando aún más, si es posible, la situación la ONU acaba de advertir que 14.000 bebés sufren desnutrición grave en la Franja.

El Ayuntamiento de Beasain pide lo que la sociedad de lleva pidiendo a gritos desde hace un año:

- 1. Condenar el brutal ataque perpetrado por Hamas el 7 de octubre de 2023.*

2. *Condenar de manera firme y sin matices el genocidio perpetrado contra la población civil-palestina en Gaza.*
3. *Exigir un alto el fuego inmediato y permanente, la retirada de las fuerzas militares de los territorios ocupados, y el respeto pleno del derecho internacional humanitario, las resoluciones internacionales y a los Derechos Humanos.*
4. *Instamos a la UE a que actúe ante la gravedad de los hechos y revise el acuerdo comercial y político que tiene con Israel.*
5. *Que se garanticen las vías seguras para la entrada de ayuda humanitaria en la Franja de Gaza, levanten el bloqueo inhumano e ilegal a este territorio y pongan fin a la ocupación del Territorio Palestino Ocupado, poniendo en práctica la opinión consultiva de la Corte Internacional de Justicia de julio de 2024 que declaraba ilegal la ocupación por Israel de Gaza y de Cisjordania, incluida Jerusalén Oriental.*

Alkate andreak (EAJ-PNV):

6. *Europar Batasunak bere eragina eta boterea erabiltzea giza eskubideen, justiziaren eta kontuak ematearen alde. Hain zuzen ere, Genevako Hitzarmenekiko errespetua bermatzeko, estatu guztiek gatazkako aldeei armak transferitzea etetea eskatzen baitu, gutxienez, nazioarteko zuzenbidea urratzeagatik kontuak ematea bermatzeko lankidetzan aritzea, eta nazioarteko erakunde eta mekanismoak babestea, Nazioarteko Zigor Gorteak eta NBEren Ikerketa Batzordeak Palestinar Lurralde Okupatuari buruz egindako ikerketak barne.*

7. *Europar Batasuna aurrez aurre egotea Gazan presentzia militar iraunkorra ezartzeko, mugak aldatzeko edo palestinarrak Gazatik edo Zisjordaniatik deportatzeko edozein ahaleginen aurka, eta behartutako lekualdaketa hori Genevako Laugarren Hitzarmenaren arau-hauste larria dela eta gerrako krimena dela onartzea.*

8: *Beasaingo Udalak berriz ere babesten du Ekialde Hurbileko Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziak (UNRWA) urgentzia humanitarioko arrazoietan oinarrituta egiten duen lana.*

9. *Beasaingo herriaren elkartasun aktiboa adieraztea Palestinako herriari eta gerren biktimak guztiei eta munduan gertatzen diren giza eskubideen urraketa justifika ezinei.*

10. *Akordio honen berri ematea Espainiako Gobernuako Presidentzeari, Kanpo-Arazoetako Ministerioari, Europako Parlamentuari, Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziari (UNRWA) eta gizarte- eta giza eskubideen aldeko erakundeei."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritzia azaldu dute.

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK): "Guk mozio honen aurrean dugun iritzia azaldu nahiko genuke. Badirudi presio sozialak bere eragina ematen ari dela. Azken egun hauetan manifestaldi jendetsuak izan dira, Londresen, La Hayan, Madrilen eta Europa Batasuneko gobernuak behartu dituela erreakzio bat irudikatzea. Azkenaldian hitzez betetako adierazpenak entzun ditugu. Zorionak genozidio hitza erabiltzen ausartu zaretelako!. Badirudi maiatzaren 14an Pedro Sanchez presidentek lehenengo aldiz hitz hori erabili, gero orain denon ahotan erabiltzea onargarria dela. Ondo etorriak izan daitezten hitzak!. Arduragabekeria izango litzateke giza-eskubideak eta Nazioarteko zuzenbidearen defentsa bideratuta dagoela onartzea eta irmotasunez lekuz kanpo dagoela esatea. Baina gure ustez, lekuz kanpo dagoena da Israel gobernuarekin erlazio komertzial eta diplomatiko politikak.

Zuen mozioaren inguruan arazo batzuk ditugu:

Ez dut uste Beasaingo herritarrek orain dela urte bete oihuka ari direnik hau salatzen. Ez dakit nondik atera duzuen duela urtebeteko puntu hori.

4. puntua oso interesgarria iruditzen zaigu. EBri eskatzen diozue, *egitateen larritasunaren aurrean jarduteko eta Israelekin dauden akordio komertzial eta politikoa berrikusteko*. Hori maiatzaren 20tik martxan dagoen prozesua da, Europako Kontseiluan eztabaidatzen ari dena. 17 herrialdeek eskatu dute, 9 aurka azaldu dira eta abstentzioa 1 izan da. Aurka azaldu diren horien artean Alemania eta Italia daude, hain zuzen ere, Europa barruan pisu handiegia dutenak berrikuspen hori aurrera atera dadin.

Eskatzen den berrikuspen horrek esan nahi du akordio horretako 2. artikulua pixka bat kontsideratzeko ea betetzen ari den. 2. artikulua dioena da, ea Israelek giza-eskubideak betetzen dituen. Europa Batasuneko kanpoko politika-ordezkariek esan zuten ekainaren 23rak erantzun bat izango dutela. Ez dakit nola ikusten duzuen. Palestinan bizi den pertsona bati esaten badiogu Europar Batasunean deliberatzen ari garela ea Israelek giza-eskubideak bermatzen dituen eta horri buruz adierazpen bat egingo dela ba, pentsatuko luke adarra jotzen ari garela. Guk uste dugu Palestinako jendeak erabaki sendoak behar dituela bere bizitza eta osasun fisiko nahiz mentala salbatzeko.

Gure ustez mozio hau oso motz geratzen da. Puntu gehienekin ados gaude, baina ados geunden ere orain dela 19 hilabete. Mozioak esaten ez duena da, adibidez.

- Dekretu legez berehalako efektua izango lukeena Israel-i arma-enbargu integrala aplikatzea. Gobernuak egin duena da tramitazio luze bat eskatzen duen prozesua hasi.

- Ez da eskatzen Europako portuetan Israelera eramaten diren erregai eta arma-materialen itsasontzien eskalak debekatzea.

- Ez da eskatzen Espainiako Gobernuak enpresa armamentistakoekin adostu zuen kontratua izoztea edo edozein enpresa armamentistako pribatuekin adostutako kontratuak bertan behera uztea.

- Ez da eskatzen Israel Nazio Batuen erakunde nagusitik kanpo uztea hego Afrikarekin apartheid garaian egin zen bezala.

- Ez da eskatzen Israelgo armadari inteligentzia artifizial software saltzen dieten enpresei santzioak ezartzea.

- Ez da eskatzen harreman diplomatikoak etetea.

- Ez da eskatzen hitzetatik ekintzetara pasatzea.

Beraz, guk zoritxarrez, ezin dugu mozio hau onartu eta abstenitu egingo gara.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Hasteko esan gure nozioa denik ez dugula sentitzen. Lehenengo puntua, adibidez, oso garbia da, askotan salatu dugun urriaren 7ko hori aipatze hutsa, hain zuzen ere. Maila berean jartzea izango litzateke egun hartan gertatutako eraso latza eta Gazan gaur egun gertatzen ari dena. Ez dakit horrek zerbait aportatzen duen urte eta erdi bat geroago genozidio basati baten aurrean gaudenean. Abia puntua ez zaigu oso zuzena iruditzen. Puntu pila batekin ados egon gaitezke eta beste batzuk ulertzen ez ditugunak. Ez da EH Bilduk idatziko lukeen mozioa. Bi milioi pertsonen gosez hiltzea kondenatu dieten momentutik, puntu batzuk anbiguoak geratzen dira: “Berandu”, “gutxi”,

“exkax”. Momentu honetan palestinarrek babes guztia behar dute. Guk baiezko kritiko bat emango diogu mozioari. Gaza, urriaren 7etik baino lehen bizi ari den egoera horrek, gaur egun guztiaren beharra baitu.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Esukal Sozialistak): “Llegamos tarde, si. Podríamos deducir que llegamos tarde, ya que como se dice en el punto dos, y ase ha tratado en la Unión Europea, pero cuando hemos presentado la moción también eran unas fechas...”. Que no compartís la moción al 100%, bueno la hemos pasado a los diferentes grupos para llegar a acuerdos. Podrías haber aportado vuestro parecer para poder también hacerla vuestra. Siempre nos hemos mostrado abiertos. Se llega tarde pero no queremos que se tomen estas palabras como si fuera algo trivial. Nosotros cuando hacemos una declaración, es porque creemos en ello. Hay que llorar por las víctimas tanto de un lado como de otro, pero la situación en Palestina, antes también fue horrible, pero lo que se vive ahora es una ignominia.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK): “Gehigarri bezala gustatuko litzaidake esatea Nazio Batuak gatazkarekiko jarrera adierazi duela eta Beasaingo Udalak tokiko agintaritzaren aldetik ez duela eskumenik zuzenik kanpoko politikako gaitan eta Nazioarteko testu inguruetan jarduten duten enpresen erregulazioa eta santzio-politika, Europar Batasunaren eskumena dela, udal eskumenetatik urrun geratzen zaigu eta tokiko erakunde bezala ditugun eskumenetatik ez dago justifikaziorik gauza hauek eskatzeko. Guri erantzun hau eman zitzaigun urriaren 31n, guk mozio asko ere xumeagoa aurkeztu genuenean. Hemen eskatzen diren gauzak Espainiako Gobernuari, Nazio Batuen erakundeari eta urrun geratzen zaizkigun erakundeei eskatzen zaizkie. Ez da ezer eskatzen Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari. Espainiako gobernuari, bai, baino gogoeta bat. Badirudi Beasaingo udalaren eskumenak izugarri puztu direla 7 hilabeteetan. Pozten naiz orain gure eskumenak handiagoak direla ikustea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Garai hartan esandakoa ez da nahastu behar orain esaten denarekin. Azken finean guk eskumena dugu mozio bitartez Europa Batasunera edo Ministeriotara eskaerak luzatzeko. Garai hartan eskaera beste bat zen. Zuk esan duzu motz geratu garela eta Evak adierazitako ideia hartuta eta hitzetatik ekintzetara pasatzen horretan esan, egun hauetan aukera izan duzuela horretarako. Ekintzetara pasatuz guk bi alderdien artean adostutako mozio-proposamen honi zuek, bakoitzak zuen aldetik, ekarpenak egiteko aukera izan duzue, baina ez dugu inolako ezer jaso. Evak egin zuen proposamenari, bi alderdien artean adostu dugu (hobeto, okerrago, motza, luzeagoa), mozioa baina bide izango zenukete ekarpenak egiteko eta adostasun bidea jorratzeko. Baina horretarako aukerarik ez dugu izan, Plenora iritsi arte zuen iritzia ez genuelako ezagutzen. Pozten naiz zuen baiezko kritiko horregatik, zeren eta beti esaten dena, horrelako mozioetan ñabardura asko daude eta ez da erraza izaten, baina egia da Palestinarrek denon babesa merezi dutela.. Pozten naiz baiezkoa ematea nahiz eta kritikoa izan.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK): “Nik uste dut Evak lehenengo guri pasatu zigula mozioa eta ikusten duguna da zuek bion artean adostutako aldea, 1. puntua dela. Evak aurkeztu zigun mozioa ez dut uste Beasaingo PSE taldeak prestatutakoa denik, baizik eta Alderdiak beste hainbat herrietan aurkeztutakoa izan da. Ekarpenak 0 izan dira. Izan dena da, zuen izena jarri beste alderdi batek egin dion mozioari.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Baina zuk ekarpenak egiteko aukera izan duzu.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK): “Ez dut esaten datorren hilabetean egingo ez ditudanik, baina hilabete honetan hiru mozioa daude eta honi aurkako mozioa aurkezte, oraintxe bertan ez zaigu logikoa iruditzen.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Txistua fuerte tragatu beharra izan dugu, baiezkoa emateko."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Pentsatzen dut, bai. Hitz batzuekin txistua tragatu duzuela."

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "En Beasain, en el partido socialista existe un comité y decidimos qué votar, las decisiones a tomar y qué presentar."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu; Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK-EN MOZIOA, JOSÉ MUJICA BEASAINGO SEME KUTTUNA IZENDATZEKO. 2025IDBO0008

Aldez aurretik Alkate andreak baimena eman da, Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK), ondorengo esan du:

"Beasaingo Udalbatzak Uruguako Ekialdeko Errepublikako presidente ohia den José Alberto Mujica Cordano goraiatu nahi du, zintzotasunaren, umiltasunaren, konpromiso sozialaren eta giza eskubideen defentsaren adibide gisa.

José Mujicak (Montevideo, 1935) behin baino gehiagotan adierazi du publikoki bere jatorria ezagutzeko interesa, Gipuzkoaren bihotzean sustraituta baitaude, gure herrian zehazki: Beasainen. Belaunaldiz belaunaldi herri honekin duen lotura familiarra etengabeko kezka pertsonala izan da berarentzat, eta hala adierazi zuen elkarrizketa eta topaketa publikoetan, non bere euskal sustraian sakontzeko nahia adierazi zuen. Astigarreta auzoa bisitatzerare etorri zen, bertan baitago arbasoen bizileku izan zen baserria.

Baina bere jatorriaz haratago, José Mujicaren bizitza eta ibilbide politikoa mundu justuago, berdintasunezkoago eta solidarioago baten aldeko borrokaren adibide unibertsala da. Uruguako presidente izan zenean, eskubide sozialen, askatasun zibilen eta guztion ongizaterako politikaren defentsa irmoa egin zuen, apaltasunean eta austeritate pertsonalean oinarrituta, bizitza-filosofia gisa.

Bere lidergo-estiloa, pribilegioetatik urrun eta herritarrengandik hurbil, mundu osoan miresteko arrazoi izan da. Mujicak koherentziaz irudikatu ditu justizia sozialaren balioak, ekitatea, ahulenen defentsa eta demokrazia parte-hartzaileago eta humanistago baten eraikuntza. Gutziak eta egoismoak, mugimendu neofaxisten gorakadak eta gaitz militaristak markatutako testuinguru global batean, bere figura inspirazio-iturri bat da milioika pertsonarentzat.

Beasaingo herriak bat egiten du balio horiekin eta horietan aitortzen da. Beasaingo José Mujica Seme Kutun izendatzeko proposamenak, apaltasunez eta ausardiarekin bere herriaren ongizatean eta justizia sozialean lagundu duen figura guztiz humanista bat aitortu eta ospatzeko nahiari erantzuten dio.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzari honako akordio hau hartzea proposatzen zaio:

AKORDIOA

1. Beasaingo Herriaren Seme Kutun titulua José Alberto Mujica Cordanori emateko espedienteari hasiera ematea, herri horrekin dituen familia-loturak eta behartsuenen zerbitzura eta gizarte-justiziaren, elkartasunaren eta duintasunaren balio unibertsalen zerbitzura egindako ibilbide politiko eta humanoa aitortzeko.

2. Akordio honen berri ematea senideei, lagunei eta kasuan kasuko erakundeei, eta aitoren formal hori egiteko egin beharreko administrazio - eta zeremonia-izapideak hastea.

3. Errekonozimendu honi zabalkunde publikoa ematea, Beasainek omenduak gorpuzten dituen balioekiko duen konpromisoaren adierazpen gisa.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ondorengo iritziak azaldu dute:

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Guk puntu bat mozio honi gehitzeko eskatu genuen baina pixka bat aldatu egin dugu aurretik adostasun batetara iristeko helburuarekin eta horrela geratuko litzateke:

Gaur egun eta etorkizunean ere bere baloreak eta koherentzia oroituak izan daitezten Beasaingo plaza, kale edo gunen bat Pepe Mujica bezala izendatzeko prozesuari hasiera ematea.

Ekarpen hau gehienbat izan da Pepe Mujicak suposatu duenagatik. Hurrengo beasaindarrek gogoratu ahal izateko eta zein izan zen galdetzen dutenentzat erremienta egokia izan daiteke.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Horrelako pertsonaia bat herriko seme kuttun izendatzeko bere bizitza-balioak eta ekarpenak kontuan hartu behar dira eta kasu honetan beasaindar jatorria eta justizia sozialaren aldeko ibilbide eredu ugaria ere. Pepe Mujicak, bai presidente zela eta baita ondoren ere, bizitza xume eta koherentea eraman zuen. Ez zuen luxuzko bizimodurik aukeratu eta hori eredugarri izan daiteke gazteentzat eta gizartearentzat orohar. Mujicak bere hitzaldi eta diskurtsoetan elkarrikeria politikoa et elkarbizitza sustatu ahal izan du. Munduan zehar entzun izan dira bere hitzaldiak eta nabarmentzekoak diren balioak eta horiek beasaindarrentzat ere balio handikoak dira. Beraz, Pepe Mujicak erakutsi izan dituen balioak partekatzen ditugula kontuan hartuaz, Beasaingo seme kuttuna izendatzeko proposamenarekin bat egiten dugu eta izendapen honek kulturakotasunaren, giza-eskubideen, ekitatearen eta demokraziaren aldeko posizionamendua adierazten du.”

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak): “Nosotros también estamos totalmente de acuerdo con la moción que ha presentado Podemos y también con el último punto que presenta EH Bildu.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Lehen ere Gobernu Batzordean esan dut, askotan leporatu zaituztegu gaiak gaizki eta azkeneko momentuan aurkeztu izan. Oraingoan guri tokatzen zaigu onartzea gauzak ez ditugula behar bezain ondo egin, garaiz eta denboran ez ditugulako aurkeztu.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez onartu da mozioa.

Plenora bertaratuko jendearen txaloak entzun dira.

6.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman dira ondorengo Ebazpenen zerrendak:

- 2025eko apirilaren 7tik maiatzaren 25era emandako Ebazpenak.
- 2025eko apirilaren 7tik maiatzaren 25era emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

GAZA

Plenora etorri den herritarrek: “Idatzi hau jaso nuenean flipatu egin nuen. 1. parrafoa eta 1. eskaera aipatuko ditut. Gehiago ere aipatuko nituzke baina asko luzatuko nintzateke. Hamasek 2023ko urriaren 7an egindako eraso izugarrien ondoren 1250 pertsona baino gehiago hil eta 250 baino gehiago bahitu ondoren, gerra eta krimenak hasi ziren eta Israelek abian jarri ditu ekintza ugari palestinar herritarrei konpon-ezina eragiteko. Genozidioa, sarraskia eta anikilazioa deitzen zaie.

Parrafo horretan esaten da Hamasen sarraskiaren ondorioz edo horren aitzakian sortu dela genozidio guzti hau. Genozidioa 48an hasi zen. Duela 80 urtetik hona egunero jendea akabatzen. Ez da izango hondamendi horren ondorioz etorri dela Hamasek eragindako sarraskia?. Aspalditik dago Israel, GAZA eta CISJORDANIA berek egin nahian. Aitzakia besterik ez zuen behar!. Netanyahu aspalditik esan zuen horiek Israelenak izan behar zutela. Azken bi urteotan ere handiagotzen joan da. Lehenengo puntu bezala sarraskia gaitzestea?. Palestinan aspalditik ari dira jendea erailtzen eta hori ez da gaitzetsi. Lehenengo puntua egun ematen ari den genozidioarena izan beharko luke. Zein interes politiko eta ekonomiko daude idatzi honen atzean?. Ez da normala, Hamasekin horrelako txurikeritan hastea. Ez da udalaren kontua, goragotik dator.”

Plenora etorri den beste herritar batek: “Mozioa motz geratu da. Europarekin ez bezala ez diozue Eusko Jurlaritzari eta Espainiako Gobernuari (2023tik mila milioi pasatxo balioa duten armak erosi dizkio Israeli), eskatzen arma-salerostaketak amaitzeko, ertzaina eta udaltzaingoentzat eskuratzen diren arma eta osagai polizialen erosketak bertan behera uzteko. Ez diozue eskatzen CAFeri Jerusalemeko mendebaldean egiten ari den tren-proiektuarekin ez jarraitzeko. Ez duzue kontuan hartzen Nazioarteko Justizia Auzitegiak estatu kolonialisten jarrera debekua. Nire ustetan konponbide bakarra da hego Afrikan apartheid-ekin amaitzeko egin zena, hau da, boikotak, zigorrak eta desinbertsioak gobernuari presionatzeko.

Amaitzeko deialdia egiten dut, ekainaren 14an, CAFeren aurka antolatutako manifestazioan parte hartzeko, enpresa honek duen joera lotsagarria salatzeko.”

Plenora etorri den hirugarren herritar batek: “Beasaingo naiz baina Palestinan bizi izan naiz sei/zazpi urte eta orain nire lana Palestinaren inguruan doa. Pozten naiz behingoz eta hainbeste urte igaro ondoren, Beasaingo udalean gai honi buruz aitorpen bat egitea. Deklarazioa ez da perfektoa, gauzak falta dira baina zerbait da. Ez dakit, ordea, herritarrentzat honek zer esan nahi duen. Udal mailan ulertzen dut baina nik proposatuko nuke herritarrei zuzendutako ziko eta ekitaldi batzuk antolatzea. Deklarazioak sinbolikoak dira eta alde horretatik ondo daude, baina herritarrek ere gehiago jakitea ondo legoke. Ni prest nago ekitaldietan parte hartzeko, lagun asko ditut Palestinan eta baita ere kontaktuak eta Mikel Ayestaran beasaindarra ere hor dugu. Herritarrentzat hitzaldi eta dokumentalak antolatu daitezke. Neri gustatuko litzaidake udalarekin lana egitea pixka bat aurrerago bilera bat izatea aztertzeko zer egin dezakegun Palestinaren alde.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Sarraskia ez da azken urteko kontu bat. Hamarkadak daramatzagu eta daramate palestinarrek horrelako sarraskiak pairatzen. Udalean aurkeztzen diren mozioa, daukaten hedapena dute. Mozioen helburua izaten da dagokionari trasladatzea presioa egitea, baina herrian, behar bada, ez du horrelako islarik izaten, komunikabideetan ez bada ateratzen. Udal mozio batek ez du halako indarrik. Beste erakundeetan ordezkatura gauden presioa egiteko modua da.

Hori esanda, zurekin hitz egiteko prest. Horrela jakingo dugu dituzun ideiak gauzatu daitezken beasaindarrei zabaltzeko zein den palestinarren egoera. Gure prestutasun osoa, nola ez!”

Herritar batek berriro ere adierazi du CAF enpresari eskatu egin beharko litzaiokeela CISJORDANIAN duen proiektua trena egiteko bertan behera uztea, legearen aurkakoa delako eta kasurik egin ezean udalak berarekin dituen harremanak moztea.

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDEAK): “Guk bere garaian aurkeztu genuen mozioan hori eskatu genuen eta esan zitzaigun udala tokiko erakundea den heienean ez duela eskumenik CAFeri ezer eskatzeko.”

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Halaxe izan zen, izan ere Europar Batasunari dagokio horrelako zerbait formalki eskatzea.”.

ERASO MATXISTAK

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH bildu): “Loinatz jaiak arrimatzen ari diren honetan eta kontuan izanda azkeneko urteetan jaietan, eraso matxistak izan direla, eskatu nahiko genioke udal ordezkari nahiz langileei protokoloak modu egokian erabiltzeko. Zoritxarrez hainbat kasuetan protokoloan hutsuneak ikusi ditugu eta jarraipen desegokia egiteagatik egoera deserosoak sortu dira bai udalarentzat eta baita ere biktimarentzat. Gauza asko gure esku ez daude, baina daudenak kontuan izatea eskatzen dugu eta horrelako egoeraren bat suertatu ezker ardurarekin jokatzeara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Jarraipen hestua eta hertsia egiteko prest gaude. Erabateko adostasuna, baina kontuan hartu behar da etorkizun hurbilari begira, protokolo hori ere berrikusi egin behar dugula.”

EZKIAGA AUZOKO IGOGAILUA

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En el pleno pasado salió el tema del ascensor de la Portería y el replanteamiento que se está intentando dar para mejorar la accesibilidad de Mateo Muxika y Arantzazu. Sabir si hay más información.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Aurtengo urtea beharko dugu proiektua lantzeko. Osatuta dagoenean partekatuko dugu Lurralde batzorde batean.

Amaitzeko, Alkatea andreak bildutakoei opa dizkie Loinatz jaiak ongi ospatzeko.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hemeretziak eta hogeita bost minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.